

Martxoaren 8an
GARIZUMAKO 2. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Gaurkoan, Garizumako erromesaldian barrena bigarren geltoki bezala, Antzaldatzearen igandea dugu: Jesus Bizia, gizon-emakumeei gizatasun eta izate berria eskaintzen. Jesus antzaldatua, gutariko bakoitza –elkarte osoa– antzaldatzen.

Pazko Gaubeila Santura begira jartzen gaitu batzar honek: Pazkoan gertatzen da gure egiazko eraberritzea, Jesusen piztuera da gauza guztiak antzaldatzeko indarra duen gertakaria.

Damu-otoitza

Senideok: Bekatuak aldendu egiten gaitu Jainkoagandik eta geure anai-arrebengandik. Egin ditzagun bakeak, damuturik bekatuen barkamena eskatuz:

- Jesus Jauna, gure erruak garbitzen dituzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guran bihotz garbia sortzen duzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, salbamenaren poza berriro ematen diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

**Oi Jainko, zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;
emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria,
gure barne-begiak argiturik, zure aintza pozez ikus dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak indartzen gaitu. Jesus da Hitz horren iturria eta Bera da gure jarraibidea: "Ez du inork maitasun handiagorik bere bizitza senideengatik ematen duenak baino".

Lehenengo irakurgaia (Has [Gn] 12, 1-4a)

Genesis liburutik

Egun haietan, Jaunak honela esan zion Abrani: «Zoaz zure lurraldetik, zure aberritik eta zure aitaren etxetik, Nik erakutsiko dizudan lurraldera. Herri haundi egingo zaitut, eta izen haundia emango dizut, eta zure izena bedeinkapen izen gertatuko da.

Bedeinkatuko ditut, zu bedeinkatzen zaituztenak, eta madarikatuko, zu madarikatzen zaituztenak; zuregan bedeinkatuak izango dira lurreko enda guztiak».

Hala joan zen Abran, Jaunak esan bezala.

Erantzun-salmoa (Sal 32, 4-5. 18-19. 20 eta 22)

A - ger - tu zu - re e - rru - ki - a. Be - dein - ka, Jau -
na, zu - re he - rri - a.



Zuzena baita Jaunaren hitza,
leiala Hark egin duen guztia.
Zuzen eta bidezko dena du maite,
Haren graziaz lurra dago bete. R/.

Hara, Jaunaren begiak beldur diotenengana,
Haren maitasuna itxaroten duteenengana;
haiek baititu heriotzatik aterako,
eta gosetean aseko. R/.

Gure bihotza Jaunaren zain dugu,
lagun eta babes Bera baitugu.
Betor gugana, Jauna, zure maitasuna,
Zugan baitugu gure uste ona. R/.

Bigarren irakurgaia (2 Tm 1, 8b-10)

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Eraman itzazu nekeak nirekin batean berri onaren alde, Jaungoikoaren indarrez. Berak salbatu gaitu, eta dei egin digu bizi santura; ez gure egiteengatik, baizik eta bere erabakiarengatik, eta gizaldi guztiak baino lehen Jesukristorengan eman zaigun graziarengatik.

Grazia hau agertua izan da orain, Jesukristo gure salbatzailea azaldu denean; Honek hondatu du heriotza, eta argitara atera bizi ustelezina, berri onaren bidez.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. Lk 9, 35)



Ain-tza Je- sus, Zu -ri be - ti. Zu za-ra gu - re ar - gi.

Jesusengan aurkitzen dugu gure izatearen helmuga eta zentzua. Bekatuak desitxuratzen duen egiazko giza itxura –Jainkoak bere irudira egina– Jesusengan aurkitzen dugu. Zaharberritze lana ezinbestekoa da, hasierako irudia berreskuratzeko. Jesusek berreskuratzen digu irudi hori bere Espirituaren indarrez. Jesusek heriotza desegin zuen eta betiko bizitza eskura jarri zigun Ebanjelioaren bidez (*1 Tim 1, 8-10*). Aitaren maitasuna ematen digu. Jainkoaren maitasun errukitsua da gure bekatuak suntsitu duena berreskura dezakeena.

Kristoren pazko misterioa ospatzea, geure misterioa ospatzea ere bada: gure sakoneko egiari begira jartzen gara. Gutako bakoitza misterio bat da eta Jesusek argitzen du misterio hori. Jainkoak hasieratik gizakientzat zuen egitasmoa Jesusengan ikusten dugu: Bera da gizaki betea. Jainkoak Kristo aukeratu zuen Berarengan bat izan gaitezen. Kristo antzaldatuarengan ikusten dugu zein den gizakiaren bokazioa, zertara deituak garen gu guztiok. Jainkoarekin bat egitera deituak gara: gure giza izatea hautsi gabe Jainkoaren bizitzaren parte gara. Jainkoa da gizakion helmuga. Helmuga hori, ordea, “Jainkoa bezalakoak” izate hori ez da gure eginahalez iristen. Badakigu Jainkoaren dohaina dela.

Baina dohain hori jasotzeko geureaz hustu behar dugu, geuretik irten. Abraham bere lurretik atera zen, bere familiarik... eta Jainkoak esandako tokira joan zen (*Has 12, 1-4*). Horrela bihurtu zen herri handi baten guraso eta herri askorentzat bedeinkapen. Bedeinkapen guztien iturri den Jainkoak Abraham baliatzen du herri guztiei zorionaren eta bedeinkapenaren bidea erakusteko. Jesusek ere izan zuen bere bidea egin beharra. Nazaret utzi eta Erreinuaren predikua bidetzat hartu zuenean. Jerusalema joan behar izan zuen eta han bere bizia eman, Jainkoaren bizia hartu ahal izateko. Eukaristia ospatzeak antzalda gaitzala eta lagun diezagula bizitza honetako zailtasunak Kristoren eskutik bizitzen.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok gure egintzen epaile den Aita errukitsuari eta gure bihotzen ezkutukoena ezagutzen dituen Jainkoari eta damu-espirituz eska diezaiogun entzun dezala bere herriaren otoitza:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

- Jainkoak eman diezaien bere senideei Garizumako egun hauek egiazko penitentzi jarreraz bizitzea eta barkamenaren sakramentua oparo ospatzeko prestatzea. Egigun otoitz. R/.
- Onbidetik urrundu eta bekatuagatik hil direnek Jainkoaren Semearen ahotsa Garizumaldi honetan entzunik bizi daitezen. Egigun otoitz. R/.
- Ondasunak dituztenei, Jainkoak eskuzabaltasun jarrera eman diezaien eta lurreko ondasunak denon onerako ugari ditzan. Egigun otoitz. R/.
- Garizumako penitentzialdiak ondasunekiko gure gehiegizko jarrera zuzen dezan eta gure espiritua sendotuz betirako diren ondasunetara begira jar gaitzan. Egigun otoitz. R/.

Jainko Jauna, Israelgo gure arbasoak federa deitu zenituen eta gu Ebanjelioaren argiaz argitu gaituzu; entzun itzazu, arren, gure eskariak eta ireki gure belarriak, zure Semearen ahotsa entzunez eta gurutzearen misterioa onartuz zure erreinuaren aintza iritsi dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Garizumako II. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 168. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Misterio aintzagarriak hartu ditugunok
eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
lur honetan gaudela ere
zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Bedeinkatu, Jauna, etengabe zeure fededunak
betiereko bedeinkapenez, eta egizu,
zure Seme bakarraren Ebanjelioari atxikirik bizi daitezela,
hark Apostoluei erakutsi zien aintza
gogo biziz bilatu eta zoriontsu eskura dezaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.** R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.** R/. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Meza-liburuan 643. or.).